

**2020-2021 IKASTURTERAKO ETA HURRENGOETARAKO
ARRIGORRIAGAKO UDAL EUSKALTEGIA ERAKUNDE
AUTONOMIADURANRE TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA****1. Zioen azalpena**

Arrigorriagako Udal Euskaltegia erakunde autonomoak zerbitzuak eman edo jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen ordenantza egokitu beharra ikusten du COVID-19k eragindako testuinguru berri horretan.

2. Tasak

Ondoko hauek dira Arrigorriagako Udal Euskaltegia erakunde autonomoan zerbitzuak eman edo jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko tasak, orduko eurotan adieraziak:

Tasa mota / Tipo de tasa	€/Ordua-Hora
Matrikula arrunta / Matrícula ordinaria	1,00
Matrikula berriztea / Renovación de matrícula	0,90

1. Irailaren lehenengo hamar egunetan hurrengo ikasturterako matrikula formalizatuz gero, 50 euroko beherapena izango dute ordaindu beharreko zenbatekoan.
2. Matrikula egiten duen pertsona edo subjeto pasiboa bizi den bizikidetz-unitatea indarrean dagoen diru-sarrerak bermatzeko errentaren zenbatekoa baino diru-sarrera gutxiago jasotzen ari badira, matrikulari dagokion tasa zero eurokoa izango da.

Era berean, tasa zero eurokoa izango da langabezia-egoeran dauden pertsonentzat, beti ere, matrikula egiteko momentuan gutxienez hilabete daramatela egoera horretan ziurtatuz gero.

Horretarako, egoera horiek egiaztatzeko dagozkion ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte. Horrez gain, tasa zero hori mantentzeko goragoko ikasturteetan, aurreko ikasturtean euskara ikasteagatik dirulaguntzak jasotzeko ezarrita dauden asistentzia- eta aprobetxamendu-baldintzak bete izana eskatuko da. Hara ere, beharra dagoen salbuespeneko kasuetan asistentzia- eta aprobetxamendu-egiaztapena baztertu ahal izango da.

3. Matrikula berriztatu dela ulertuko da ikasleek matrikula berria egiten dutenean, edo ikasturtean bertan, edo jarraikakoetan.
4. Tasa desberdinak aplikatzeko aukera egonez gero, ikaslearentzako onuragarriena dena aukeratuko da matrikularen zenbatekoa kalkulaterakoan.
5. Erakunde, enpresa edota nortasun juridiko publiko nahiz pribatua duen elkar-terren batetik dirulaguntza jasoz gero, ohiko matrikulagatik tasak baino ez dira aplikatuko matrikularen zenbatekoa kalkulatzeko orduan.
6. Erakunde publiko nahiz pribatuek h ala eskatuta Udal Euskaltegiko langileek ikastaroak ematen dituztenean, Arrigorriagako Udal Euskaltegiaren Artezkaritza Batzordeak finkatuko du ikastaro bakoitzarengatik tasa; betiere, emandako zerbitzuaren edota burututako jardueraren kostua kontuan hartuta. Dagoeneko aipatu ditugun ikastaroetarako eskaintzez gain, gainera, Artezkaritza Batzordeak erabakitako tasak ere aplikatu beharko dira.

3. Kudeaketa-arauak

1. Zerga egitatea Udal Euskaltegiak ikastaroak emateagatik zerbitzua denez, ordaintzeko betebeharra adingabe batek izango balu, horren legezko ordezkariari dagokio ordainketa hori egitea, matrikula formalizatzen den unean bertan; zerbitzua eskatzen duena talde, elkarte edota erakunderen bat izanez gero (publiko zein pribatua), zerbitzua eskatu duen pertsonak egin beharko du ordainketa, gainerako kide, elkartekide edota langileen izenean.



2. Behin ikasturtea hasita alta direnentzat, matrikularen zenbatekoa hiruhileko horretan eta hurrengoetan emandako eskola-orduen arabera kalkulatu da.
3. Tasaren sortzapena matrikula eskaera aurkeztean izango da. Matrikularen zenbatekoa ikastaroaren hasieran oso-osorik edo %50eko bi ordainketetan ordaindu behar da. Ordainketa epetan ordaindu nahi izanez gero, dagokion eskaera bete eta idazkaritzan aurkeztu behar da matrikularen eskaerarekin batera, betiere, 50 euroko edo hortik gorako matrikulen zenbatekoak badira.
4. Tasaren ordainketa matrikulatzen den pertsonak berak emandako eta baimendutako banku-kontuko karguaren bitartez egingo da. Ordainketa epetan izanez gero, lehenengo kargua matrikula formalizatzen den unean egingo da eta bigarren kargua hurrengo hilabetean.
5. Norbaitek matrikularen baliogabetzea eskatuko balu, Presidente delegatuak, aztertu ondoren, ebazpenaren bidez ebatziko du.
6. Matrikulatugaiari ezin egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, zerbitzua gauzatzen ez bada, dagokion zenbatekoa itzuliko zaio.
7. Ordaindu gabeko tasak egonez gero, eta egoera horrek iraun bitartean, ezingo da zerbitzu berriak eskuratu. Beraz, ez da matrikula berriak onartuko zorra ordaindu arte.